

Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen. Teknologia digitalak eta ekintza komunitarioa uztartzen dituen esperientzia berritzailea landa-eremuan

Ane Arteche Ortigosa

APTES-Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkarte
anearteche@zabalduz.eus

Maddalen Epelde Juaristi

Soziologia eta Gizarte Langintza Saila, Lan Harreman eta Gizarte Langintzako Fakultatea, Gasteizko Atala, Euskal Herriko Unibertsitatea EHU
maddalen.epelde@ehu.eus

Elena Rikondo Sáenz

Saiaz Gizarte Zerbitzu Mankomunitatea
saiaz@saiaz.eus

“Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen” Gipuzkoako Saiaz Mankomunitatean garatutako esperientzia berritzailea da, teknologia digitalak eta ekintza komunitarioa uztartuz landa-ingurunean belaunaldien arteko loturak, parte-hartzea eta ongizate komunitarioa indartzeko helburua duena. Ikerketa-diseinuak ikuspegi kualitatibo eta parte-hartzailea izan du, kasu-azterketan eta tresna mistoen triangulazioan oinarrituta (elkarrizketak, behaketa/etnografia digitala eta Wellk aplikazioaren jardura-datuak). Teoriaren bidezko aldaketa eredu erabili da ebaluazio-marko gisa, lau dimentsiotan: harreman eta topaketa berriak, jardura fisikoaren eta ongizatearen bilakaera, memoria kulturalaren aktibazioa eta kohesio sozialaren indartzea. Emaizen arabera, hilabete batean 4.324 kilometro eta 544 jardura erregistratu ziren, eta parte-hartzaileek teknologiarekiko konfiantza eta komunitate-sentimendua handitu zirela adierazi zuten. Ondorioztatu daiteke, beraz, diseinu eta teknologia sozialek ahalmen handia dutela gizarte-berrikuntzarako eta gaitze digital inklusiborako, eta gizarte-langintzatik gidatutako ikuspegi komunitarioak transferigarritasun handia erakusten du landa-inguruneetan ere.

Gako-hitzak:

Diseinu soziala, ekintza komunitarioa, gizarte-langintza, inklusio digitala, landa-eremua, teknologia soziala.

“Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen” (“Reto comunitario: viajando a través de la historia”) es una experiencia innovadora desarrollada en la Mancomunidad de Saiaz (Gipuzkoa), que combina tecnología digital y acción comunitaria para fortalecer los vínculos intergeneracionales, la participación y el bienestar comunitario en el medio rural. El diseño de la investigación adoptó un enfoque cualitativo y participativo, basado en el estudio de caso y la triangulación de métodos mixtos (entrevistas, observación/etnografía digital y datos de actividad de la aplicación Wellk). Como marco de evaluación, se utilizó el modelo de teoría del cambio, estructurado en cuatro dimensiones: generación de nuevos espacios relacionales, evolución del bienestar físico y emocional, activación de la memoria cultural y refuerzo de la cohesión social. Los resultados muestran que, en un mes, se registraron 4324 kilómetros y 544 actividades, y que las personas participantes manifestaron un aumento de la confianza en la tecnología y del sentido de comunidad. En conclusión, el diseño y la tecnología sociales demuestran un alto potencial para la innovación social y la capacitación digital inclusiva, y el enfoque comunitario impulsado desde el trabajo social presenta una gran transferibilidad también en entornos rurales.

Palabras clave:

Acción comunitaria, diseño social, inclusión digital, medio rural, tecnología social, trabajo social.

1. Sarrera

Artikulu honen helburua "Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen" (aurrerantzean "Erronka komunitarioa") ekimena azaltzea da, Saiaz Mankomunitateko Bidania-Goiatz eta Errezilgo herrietan garatutako ekimen komunitario integratzaile bat. Ekimen honek erakusten du nola erabil daitezkeen teknologia digitalak gizarteratze-prozesuak, belaunaldien arteko harremanak eta komunitate-kohesioa sustatzeko.

Proiektuaren oinarrian diseinu sozialaren eta teknologia sozialaren ikuspegia dago, hau da, soluzio digitalak pertsonen eta testuinguruaren beharretara egokitzeko printzipioa. Ikuspegi horrek teknologia ez du helburu tekniko gisa ulertzen, baizik eta gizarte-ongizatea eta herritarren parte-hartzea indartzeko tresna gisa (Fernández-Riquelme, 2019; López Peláez, Pérez García eta Aguilar-Tablada, 2018). Aldi berean, esperientzia hau Gipuzkoako gobernantza kolaboratiboaren eta berrikuntza sozialaren markoan kokatzen da (Barandiaran, 2021), non administrazioak, komunitateak eta gizarte-eragileek elkarrekin jarduten duten "balio publikoaren" sorkuntzan. Testuinguru horretan, gizarte-langintzak bereziki egokitzen du bere papera bitartekari eta erraztaile modura, komunitatearen eta erakundearen arteko loturak sendotuz.

Tokiko eragileek eta herritarrek proiektuaren erdigunean parte hartzea da berrikuntzaren giltza, Kania eta Kramerrek (2011) deskribatutako *collective impact* ikuspegiaren ildotik. Egile horien arabera, inpaktu kolektiboak hainbat eragileren arteko elkarlan egituratua proposatzen du gizarte-erronka konplexuak konpontzeko: helburu partekatuak, ebaluazio komuneko mekanismoak eta komunikazio etengabea dira komunitate-aldaketarako baldintza nagusiak. Horren harira, Ferran eta besteek (2024) proposatzen duten ikuspegi komunitario dialogikoak gida teoriko baliagarria eskaintzen du artikulu honek erdigune duen "Erronka komunitarioa" bezalako esperientziak ulertzeko, izan ere, ikuspegi horrek azpimarratzen du parte-hartzea ez dela soilik parte hartzeko ekintza, baizik eta esanahi sozial berrien eraikuntza kolektiboa. Era berean, Gurstein-en (2007) *community informatics* kontzeptuak laguntzen du ulertzen zergatik den funtsezkoa teknologiaren erabilera esanguratsua, hau da, komunitatearen beharrak, gaitasunak eta harreman-sareak kontuan hartzen dituen; teknologia sozialaren oinarrietako bat da ikuspegi hori. Horrez gain, proiektuaren ebaluazioan teoriaren bidezko aldaketa (*theory of change*) eredu hartu zen erreferentzia metodologiko nagusitzat, prozesuaren inpaktu soziala dimentsio anitzetan aztertzeko eta aldaketaren logika komunitarioa ulertzeko.

Lan honen asmoa da, beraz, ezagutza praktikoa eta metodologikoa sistematizatzea, gizarte-langintzako diziplinari ekarpena eginez eta ikuspegi digital humanista eta inklusibo baten beharra azpimarratuz. Azalduko den esperientziak erakusten du gizarte-

langintzaren profesiotik posible dela berrikuntza sozial eta teknologikoa uztartzea, komunitatearen protagonismoa, historia eta balio etikoak (elkartasuna, konfiantza eta kohesioa) erdigunean jarriz.

2. Marko teorikoa

"Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen" esperientzia *theory of change* eredu oinarritutako proiektu komunitarioa da, eta horrek dimentsio anitzak uztartzen ditu: soziala, digitala, komunitarioa eta profesionala. Marko horrek planteatzen du aldaketa sozialaren prozesuak hiru mailatan ulertu behar direla:

1. Maila pertsonala, non norbanakoek ikaskuntza, konfiantza eta ahalduzko emozionala garatzen duten;
2. Maila komunitarioa, non parte-hartzeak eta elkarlan-sareek kohesioa eta identitate kolektiboa indartzen duten, eta
3. Maila sistemikoa edo profesionala, non eragileen jarduerak eta praktikak eraldatzen diren, ongizate sozial iraunkorren mesedetan.

Marko horretan oinarrituta, marko teoriko honek lau ardatz nagusi bereizten ditu, esperientziaren garapena eta emaitzen azterketa kokatzeko:

1. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-langintzaren egungo erronkak testuinguru azeleratu batean (maila sistemikoa/profesionala).
2. Teknologia digitalen aukerak eta mugak, ikuspegi inklusibo eta eskubideetan oinarritutik (maila pertsonala eta komunitarioa).
3. Ikuspegi komunitarioaren garrantzia eta gizarte-langintzaren papera komunitateen saretzean (maila komunitarioa).
4. Teknologia sozialaren eta diseinu sozialaren uztarketa, gizarte-berrikuntza komunitarioaren oinarri gisa (maila sistemikoa eta komunitarioa).

Atal bakoitzak esperientziaren dimentsio bati erantzuten dio, eta elkarrekin osatzen dute proiektuaren azalpen eta interpretazio teorikoaren hari nagusia, *theory of change* eredu oinarritutako aldaketaren logika osatuz.

2.1. Aldaketa sozial azeleratua eta gizarte-zerbitzuen erronkak

Gizarte-errealitatea etengabe aldaketan dago, eta horrek erronka konplexuak ezartzen dizkie gizarte-zerbitzuei eta gizarte esku-hartzean dabilzan eragileei, eta beraz gizarte-langintzari diziplina gisa: pobrezia eta desberdinkeria egoeren hedapena, arazo kronifikazioa, eta arre-etsaeren intentsifikazioa, besteak beste (Berasaluze eta Ovejas, 2022). Testuinguru bizi honetan, beharrezkoa da ezagutza, berrikuntza eta antolaketa-praktiken arteko

loturak indartzea, erabakiak informatzeko eta esku-hartzeak eguneratzeko (Li *et al.*, 2017).

Horri lotuta, Fantovak (2018) azpimarratzen du ekintza sozialaren erronka nagusietako bat dela politika publikoen eta gizarte-ekintzaren arteko koherentzia berreraikitzea, bereziki gizarte-zerbitzuen baitako gizarte-langintzan. Izan ere, azken hamarkadetan gizarte-langintzaren jardun instituzionala gero eta gehiago mugatu da esku-hartze indibidualizatueta eta prozedura teknikoetara, eta horrek diziplinaren ikuspegi komunitario, politiko eta eraldatzailea lausotu du. Hala ere, hirugarren sektorean eta tokiko ekintza komunitarioetan garatutako esperientziek erakusten dute gizarte-langintzak baduela bere izaera eraldatzaile eta komunitarioa berrasmatzeko gaitasuna, eta ikuspegi horretan kokatzen da lan honetan aztertzen den esperientzia.

Aldi berean, erakundeek ikuspegitik (udalak, mankomunitateak, elkarteak eta gizarte-zerbitzuak osatzen dituzten antolakundeak kontuan hartuta), barne-erlaketak kulturalak funtsezkoak dira berrikuntza sozial eta digitala txertatzeko. Kultura antolamendu malgu eta parte-hartzaileetan, non ikaskuntza kolektiboa eta esperimentazioa sustatzen diren, erakundeek gaitasun handiagoa erakusten dute krisien eta aldaketan aurrean egokitzeke; horrek erresilientzia instituzionala eta berrikuntza iraunkorra ahalbidetzen ditu (Pacheco-Mangas, Palma-García eta Hombrados-Mendieta, 2020).

Testuinguru gipuzkoarrean, gobernantza kolaboratiboaren ikuspegia (Barandiaran, 2021) erakusten ari da administrazio publikoek, komunitateek eta hirugarren sektoreko eragileek elkarlanean jarduteak berrikuntza sozialaren oinarriak sendotzen dituela. Artikulu honek erdigune duen "Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen" bezalako proiektuak ildo horren adibide dira, eraldaketa sozialerako gaitasun komunitarioa eta instituzionala uztartzen dituzten neurrian.

2.2. Teknologia digitalak: aukerak, arrakalak eta eskubideak

Teknologia digitalak gure eguneroko bizitzaren parte dira, eta gero eta gehiago eragiten diote ongizateari, parte-hartze zibikoari eta zerbitzu publikoen erabilerari. Hala ere, digitalizazioak ez du automatikoki inklusioa bermatzen: arrakala digitalek (sarbidea, gaitasunak eta erabilera esanguratsua) desberdintasun sozialak areagotu ditzakete, bereziki adinekoengan eta baliabide urrienak dituztenengan. Horregatik, beharrezkoa da digitalizazioaren prozesuak eskubideetan oinarritutako ikuspegitik ulertzea eta garatzea.

Ikuspegi horren oinarriak ezartzen dituzte Europako Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorrak (EB 2016/679), Espainiako Datuen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermerako LO 3/2018k eta Eskubide Digitalen Gutunak (Espainiako Gobernuak,

2021); era berean, Europar Batasunaren Adierazpen Digitalak (2022) eta Digital Compass 2030 ibilbide-orriek herritarren ahalduntzea eta "inor atzean ez uztea" finkatzen dute helburu nagusi gisa. Horren ildotik, erabilgarritasunaren eta irisgarritasun kognitiboaren printzipioak funtsezkoak dira teknologia sozial inklusiboak diseinatzeko (Plena Inclusión, 2018). Gipuzkoako *Arrakalarik gabeko ekimen digitalak* gidak (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2023) diseinu inklusiborako jarraibide praktikoa eskaintzen ditu, eta esperientzia honetan oinarri teknologiko gisa erabili dira.

Hala ere, ezin da ahaztu digitalizazioaren beste alde ilun bat: deshumanizazio-arriskua. Administrazioaren efizientziaren izenean, pertsonen behar eta bizipenak bigarren mailara igaro daitezke. Ken Loachen *I, Daniel Blake* (2016) filmak modu paradigmatikoa erakusten du nola logika digitalizatu eta burokratizatu batek pertsonen duintasuna eta eskubide sozialak arriskuan jar ditzakeen. Horregatik, beharrezkoa da teknologia sozial, inklusibo eta humanista bat garatzea, non tresna digitalek komunitatearen ongizatea eta harreman sozialak indartzea duten helburu. Hurrengo atalak, hain zuzen, ikuspuntu hori garatuko du ikuspegi komunitarioaren printzipioetan oinarrituta.

2.3. Ikuspegi komunitarioa eta e-komunitateak gizarte-langintzatik

Tokiko komunitateek gizarte-ongizatea eta inklusioa sustatzeko eginkizun estrategikoa dute. Ez dira soilik biztanle multzoak, baizik eta kapital sozialaren eramaileak: harreman-sare, konfiantza, elkartasun eta lankidetzaren mekanismoen bidez komunitatearen kohesioa eta erresilientzia eraikitzen dituzten egiturak dira (Putnam, 2000; Bourdieu, 1986). Kapital sozialak, beraz, funtzio bikoitza betetzen du: alde batetik, babes eta laguntza informalaren oinarri da, eta bestetik, ekintza kolektiboaren eta berrikuntzaren eragile.

Gipuzkoako Ekintza Komunitarioaren Gidak (2025) ikuspegi hori garatzen du, administrazio publikoaren eta herritarren arteko lankidetzaren sustatuz, tokiko eragileak aktibatuz eta sare sozialak indartuz. Gida horretan hainbat estrategia eta printzipio metodologiko jasotzen dira modu praktikoa aplikatzeko, eta aztergai dugun ekimen komunitarioak horiek bere egin ditu. Zehazki, honako printzipioak nabarmendu dira: 1) presentzia izatea eta harremanetatik abiatzea; 2) harrera komunitarioaren garrantzia; 3) bilaketara irtetea; 4) ekintza erdigunean jartzea; 5) barruko pertsonekin lan egitea; 6) jendearen indargune eta gaitasunetatik abiatzea, emanez integratzeko aukera sustatzeko; eta 7) lidergo erraztaileak garatzea. Hortaz, gizarte-langintzaren alorrean, ikuspegi komunitarioa indartzea funtsezkoa da gizarte-zerbitzuak prebentziozkoak, parte-hartzaileak eta eraldatzaileak bihurtzeko.

Ferran eta besteek (2024) azpimarratzen dute ekintza komunitarioa ez dela soilik esku-hartze tekniko edo parte-hartze-prozesuen batura, baizik eta

gizarte- eta politika-mailako ikuspegi integratua, non komunitatearen esanahia bera erakitzen den modu dialogikoan. Autoreen arabera, inklusioa ez da emaitza soil bat, baizik eta gizarte-loturen eta herritartasun partekatuaren eraikuntza etengabea. Horregatik, ikuspegi komunitarioa ezin da bereizi gizarte-berrikuntzaren logiketatik: komunitateak ez dira soilik ekintzaren hartzaile, baizik eta ezagutza eta eraldaketa sozialaren eragile aktibo.

Ikerketa ugari frogatu dute komunitateetan parte-hartzea eta harreman sozialak sustatzen dituzten esku-hartzeek eragin positiboa dutela ongizate emozionalean, autoestimuan eta osasun mentalean, eta, aldi berean, gizarte-kohesioa eta konfiantza instituzionala handitzen dituztela (Arriazu eta Fernández-Pacheco, 2013; Del Fresno eta López, 2014; Fernández-Riquelme, 2019). Horrela, ikuspegi komunitarioak ez du soilik dimentsio soziala indartzen, baizik eta norbanakoaren ongizate emozionalaren eta kolektiboaren arteko harremana berrinterpretatzen du.

Bestalde, ikuspegi komunitario hori gaur egungo errealitate digitalarekin uztartzeak aukera berriak irekitzen ditu gizarte-langintzarentzat. *Community informatics* ikuspegitik (Gurstein, 2007), teknologia digitalak komunitate-prozesuen aliatu izan daitezke: informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabil daitezke komunitatearen autoantolaketa, ezagutza kolektiboa eta ekintza soziala sustatzeko.

Bilakaera horretan, gero eta gehiago ari da zabaltzen e-komunitateen kontzeptua, hau da, komunitate digitalak eta presentzialak uztartzen dituzten sare sozial hibridoak, teknologia digitalak baliatuz harreman sozialak, parte-hartzea eta jakintza kolektiboa errazteko. Gizarte-langintzaren diziplinatik, horrek erronka berriak dakarzikie profesional eta erakundeei, baina baita aukera handiak ere komunitateak eraldatzeko eta koehesioa sendotzeko tresna berrien bidez.

Hori horrela, kapital sozialaren aktibazioa ez da soilik harreman sozialen kontua, baizik eta horiek errazteko, zabaltzeko eta berritzeko moduen ingurukoa ere bada. Azken urteetan, teknologia digitalen gero eta paper handiagoa hartu dute komunitateen dinamizazioan eta koehesio sozialaren sustapenean. Sare sozialen, aplikazio kolaboratiboen eta plataforma digitalen bidez, posible da komunitateko pertsonak, taldeak eta baliabideak elkar konektatzea, eta, horrela, gizarte-loturak sendotzea eta parte-hartze aktiboa sustatzea (López Peláez, Pérez García eta Aguilar-Tablada, 2018).

Testuinguru honetan kokatzen da teknologia sozialaren ikuspegia: hau da, teknologia ez ulertzea helburu tekniko edo instrumentaltzat, baizik eta gizarte-eraldaketarako tresna gisa, komunitateen beharrak eta gaitasunak erdigunean jarriz. Ildo horretan, hurrengo atalak aztertuko du nola uztartzen diren ikuspegi horiek gizarte-berrikuntza digitalaren esparru orokorrean.

2.4. Teknologia eta komunitatea uztartzeko ekimenak: teknologia soziala eta diseinu soziala

Gizarte-langintzaren praktikak gero eta harreman estuagoa du gaur egun eremu digitalarekin. Teknologia ez da soilik lanerako baliabide osagarri bat, baizik eta gizarte-berrikuntzaren eta komunitatearen koehesioaren motorra bihurtu da. Horren erakusgarri da gizarte-langintza digitalaren (*e-social work*) garapena, zeinak esku-hartze presentziala eta online-a uztartzen dituen eta herritarrekin zein komunitateekin interakzio-modu hibridoak proposatzen dituen (López Peláez, Pérez García, eta Aguilar-Tablada, 2018). Diziplina berri horrek aukera ematen du profesionalak eta erabiltzaileak informazioa, laguntza eta parte-hartze soziala elkarrekin eraikitzeko, teknologia digitalak erabili eta moldatuz testuinguru bakoitzaren beharretara. Horrek lotura zuzena du Gurstein (2007) eta APTES-Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkarteak (2023) deskribatzen duten teknologia komunitarioaren kontzeptuarekin: hau da, teknologia gizarte-prozesuetara txertatzea, tokiko gaitasunak eta sare sozialak indartzeko tresna gisa.

Hala ere, aurrez aipatu den moduan, ezin da ahaztu digitalizazioaren hedapenarekin batera etorri den arrakala digitala, zeinak bazterketa sozialaren forma berriak eragiteko arriskua duen, bereziki adinekoen, landa-eremuko pertsonen eta baliabide gutxiko familien artean. Horregatik, ikuspegi inklusibo eta humanistiko batetik planteatutako teknologiak behar dira, pertsonak eta komunitateak gaitzeko eta ez baztertzeko. Hor kokatzen da teknologia sozialaren kontzeptua: teknologia gizartearen zerbitzura jartzea, ez alderantziz (Fernández-Riquelme, 2019).

Espainiako testuinguruan, azken urteetan hainbat erakundek —hala nola APTES elkarteak eta Nagusi Intelligence Center (NIC) bezalako berrikuntza-zentroek— garatu dute ikuspegi hori, diseinu sozialaren printzipioetan oinarrituta. Diseinu sozialak proposatzen du soluzio digitalak pertsonak eta komunitateak gidatutako prozesuen bidez sortzea, eta ez soilik aditu teknologikoen bidez. Horrek esan nahi du soluzio digitalak tokiko ezaugarriari eta gizarte-koehesioaren beharrei egokitu behar zaizkiela, teknologia komunitarioaren ikuspegitik (APTES, 2023).

Europako esparruan, gizarte-langintza digitalaren garapenak dimentsio etiko eta juridiko sendoa ere badu. Garrantzitsua da, jadanik aipatu diren Europako Datuen Babeserako Erregelamendua (2016/679) eta Datu Pertsonalen Babeserako eta Eskubide Digitalen Bermearen Lege Organikoa 3/2018 bezalako araudiak errespetatzea, eta datuen erabileran proportzionaltasuna, gardentasuna eta eskubide digitalen bermea txertatzea (Espainiako Gobernuak, 2021). Horrek bermatzen du teknologia sozialaren garapena ez dela soilik berritzailea, baizik eta eskubide sozialen eta demokraziaren ikuspegitik bidezkoa eta seguru ere bada.

2.5. Gizarte-langintzaren ikuspegitik: berrikuntza sozial eta komunitarioaren arteko elkargunea

Teknologia soziala eta ikuspegi komunitarioa uztartzen direnean, gizarte-berrikuntza eraldatzailea gauzatzeko espazio aberatsa sortzen da. Berrikuntza sozialak ez du soilik prozesu edo tresna berrien sorkuntza bilatzen; gizarte-arazoak beste modu batean ulertzea eta konpontzea proposatzen du, komunitatearen parte-hartzea eta ahalduntzea oinarri hartuta (Moulaert *et al.*, 2013).

Ferran eta besteen (2024) arabera, berrikuntza soziala komunitatearen eta instituzioen arteko elkarrizketa etengabearen bidez gauzatzen da, eta gizarte-ongizatearen zein herritartasun inklusiboaren eraikuntza kolektibo gisa ulertu behar da. Ildo horretan, gobernantza kolaboratiboaren ikuspegiak (Barandiaran, 2021) azpimarratzen du komunitate-dinamikek eta politika publikoek elkar elikatu behar dutela. Gizarte-langintzak funtsezko rola betetzen du horretan: bitartekaritza egiten du komunitateen eta erakundeen artean, eta, horrela, berrikuntza sozialaren dimentsio publiko eta demokratikoa indartzen du.

Gizarte-langintzaren diziplinatik begiratuta, horrek esan nahi du profesionalak gero eta gehiago behar dutela diseinu parte-hartzailean, ikuspegi komunitarioan eta gaitasun digitaletan oinarritutako trebakuntza. Gizarte-langileak ez dira soilik baliabideen kudeatzaile edo kasuen artatzaile: komunitatearen saretzaile eta bitartekari digital bihurtzen dira, gaitasun sozialak eta teknologikoak uztartuz (Arriazu eta Fernández-Pacheco, 2013). Rol horrek —teknologo sozialarena— diziplinaren mugak zabaltzen ditu, eta gizarte-langintzaren misio humanista eta eraldatzailea eguneratzen du eremu digital eta komunitarioetan. Bestalde, diseinu sozialak aukera ematen du proiektuak ez soilik erabiltzaileei zuzentzeko, baizik eta haiekin batera sortzeko. Horrek ekintza komunitarioaren balio tradizionalak (elkartasuna, laguntza, konfiantza) berrinterpretatzen ditu eremu digitaletan, eta bide ematen du kapital sozialaren dimentsio berriak garatzeko (Putnam, 2000; Bourdieu, 1986).

Ildo horretan kokatzen dira artikulu honetan aztertzen gabiltzan "Erronka komunitarioa" bezalako esperientziak: tokiko komunitateetan oinarritutako ekimenak, non teknologia eta komunitatea uztartzen diren belaunaldien arteko harremanak sustatzeko, tokiko memoria zaintzeko, inklusioa bultzatzeko eta gizarte-loturak sendotzeko. Halako proiektuek erakusten dute gizarte-langintza ez dela soilik laguntza-sistema bat, baizik eta gizarte-berrikuntzaren eragile nagusia, eremu digital zein presentzialetan.

3. Metodologia

3.1. Diseinua eta ikuspegia

Ikerketak ikuspegi kualitatibo eta parte-hartzailea izan du, Ikerketa Ekintza Parte-hartzailearen (IEPH) eta berrikuntza sozialaren printzipioetan oinarrituta. Helburua ez da soilik esperientzia baten deskribapena, baizik eta tokiko komunitate batean teknologia sozial inklusiboa nola txertatzen den ulertzea eta praktika transferigarriak identifikatzea.

Diseinua kasu-azterketa baten logikan oinarritu da (landa-ingurunean: Saiaz Mankomunitatea), eta triangulazio mistoa erabili da: elkarrizketa eta behaketa kualitatiboak, eta Wellk aplikazioaren jarduera-datu deskribatzaileak uztartuz. Parte-hartze prozesua ezagutza kolektiboaren eraikuntza gisa ulertu da (Ferran *et al.*, 2024), eta *collective impact* markoaren printzipioetan (Kania eta Kramer, 2011) inspiratu da, agenda eta ebaluazio partekatua bermatuz.

Esperientziaren sistematizazioa tokiko profesionalen (teknologo soziala eta gizarte-langileak) eta unibertsitateko ikerlarien arteko lankidetzara gisa garatu zen. Horrek aukera eman zuen praktika komunitarioaren eta ezagutza akademikoaren arteko zubia eraikitzeko, ezagutza transferentzia eta ikaskuntza partekatua sustatuz.

3.2. Ezarpen-testuingurua eta kronograma

Esperientzia Saiaz Mankomunitatean gauzatu zen (Albiztur, Beizama, Bidania-Goiatz eta Errezilen), 2024ko azaroaren 5etik abenduaren 5era bitartean. Aurretik, APTES elkarteak eta Saiaz mankomunitateak "Auzotu" programa garatu zuten (2021-2023), teknologia komunitarioaren bidez parte-hartzea eta auzolana sustatzeko. Esperientzia horrek oinarri sendoa eman zion egitasmo berriari.

Hasierako diseinua eguneko zentroetan teknologia txertatzera bideratuta bazegoen ere, diagnostikoak ikuspegi komunitarioagoa proposatzera eraman zuten, komunitate osoa inplikatzu eta teknologo sozialaren figura ardatz bihurtuz. Horrek diseinu sozialaren logiketan oinarritutako ekintza zabala ahalbidetu zuen, tokiko eragileekin eta herritarrekin elkarlanean.

3.3. Parte-hartzaileak eta rolen antolaketa

Proiektuan 74 pertsonak parte hartu zuten (batez besteko adina: 55 urte), adin, genero eta rol anitzetakoak. Parte-hartzaileen artean profesionalak (Saiaz mankomunitateko gizarte-zerbitzuetako gizarte langilea, APTES-eko teknologo soziala), komunitateko eragileak (liburutegia, elkarteak, gazte taldeak, ikastetxeak, ludoteka, eguneko zentroa, osasun-zentroa, udalaren ordezkariak) eta herritarrak egon ziren.

Eredu irekia eta kolaboratiboa izan zen: proiektua ez zen soilik profesionalen esku geratu, baizik eta komunitatearen sare sozialak eta tokiko ezagutza aktibatu ziren. Horrek izaera inklusiboa eta belaunaldien arteko elkarlana indartu zuen.

3.4. Teknikak eta tresnak

Metodologia malgu eta kolaboratiboa aplikatu zen, ikaskuntza eta ekintza uztartzeko:

- Lehen fasean, behar digitalen diagnostikoa egin zen online inkesta baten bidez, hiru dimentsio nagusitan banatuta: espazioaren baliabide digitalak, profesionalen gaitasunak eta erabiltzaileen interes eta beharrak. Diagnostiko horrek oinarri sendoa eman zion ondorengo interbentzioari eta behaketa-prozesuari, izan ere, horren ondoren behaketa parte-hartzailea eta elkarrizketa erdi-egituratuak egin ziren, motibazio, konfiantza digital eta komunitate-sentimenduaren inguruan.
- Prozesu osoan zehar tresna digital kolaboratiboak erabili ziren (Drive, Miro, Zoom, WhatsApp, besteak beste), parte-hartzea eta ezagutza partekatua sustatzeko. Miro plataformak adierazleekin diseinua, kronograma eta emaitzen lehen analisi egiteko balio izan zuen, ikuspegi bisual eta koherente bat bermatuz.
- Azken fasean, Wellk aplikazioa izan zen egitasmoaren hari gidaria. Aplikazioaren ikuspegi komunitarioari eta tokiko ezaugarriei egokitutako diseinuari esker, herritarren parte-hartzea errazteko eta ingurune digitalarekiko konfiantza sendotzeko aukera sortu zen. Era berean, Wellk aplikazioaren jarduera-datuak (jarduera fisikoak, kilometroak, parte-hartze-denbora) jaso eta datu kualitatiboekin triangulatu ziren, emaitzen interpretazio osoago eta integratua lortzeko.

3.5. Ebaluazio-irizpideak eta analisisa

Ebaluazioa teoriaren bidezko aldaketa (*theory of change*) marko metodologikoaren arabera egin zen, proiektuaren kausalitate-logika eta eragin nagusiak identifikatzeko. Horretarako, lau ebaluazio-ardatz edo eragin-esparru zehaztu ziren, proiektuaren helburu nagusiekin lerrotatuta:

1. gizarte-harreman berrien sorrera eta topaketa berrien maiztasuna;
2. jarduera fisikoaren eta ongizatearen bilakaera;
3. tokiko memoria eta istorioen berreskurapena, eta
4. kohesio sozialaren eta lankidetzaren berrien indartzea.

Elkarrizketen eta landa-koadernoaren analisi tematikoak (Braun eta Clarke, 2006) dimentsio kualitatiboak islatu zituen, eta Wellk aplikazioaren datuek ikuspegi deskribatzaile kuantitatiboa eskaini zuten (4.324 km eta 544 jarduera). Triangulazioak emaitzen sendotasuna indartu zuen, eta interpretazio

partekatua *member checking* prozesuen bidez landu ziren komunitatearen itzulera-saioetan; hau da, parte-hartzaileekin emaitzak kontrastatu eta haien iruzkinak txertatu ziren interpretazioan. Horrek esperentziaren dimentsio kolektiboa eta eraldatzailea azpimarratu zuen (Ferran *et al.*, 2024).

Azpimarratzekoa da elkarrizketen eta testigantzen tratamenduan ez dela kode-sistema formalik erabili, parte-hartzaile kopurua eta profil aniztasuna kontuan hartuta (profesionalak, herritarrak, komunitateko eragileak). Horren ordez, testuan zehar hitz-jasoak identifikatu dira esataria zein segmentutakoa zen adieraziz (“profesional batek”, “parte-hartzaile batek”), gardentasuna eta testuinguruaren koherentzia metodologikoa bermatzeko.

3.6. Etika eta datu-babesa

Esperientzia hau garatzeko, parte-hartzaileen borondatezko atxikimendua izan zen oinarritzeko baldintza. Parte hartzeko aurretik baimen informatua jaso zen, ahoz nahiz idatziz, eta argi azaldu zen zer datu bilduko ziren eta zertarako erabiliko ziren. Datu pertsonalen tratamendua Europako Datuen Babeserako Erregelamendura —GDPR— (2016/679) eta Espainiako 3/2018 lege organikora egokitu zen. Jasotako informazio guztia anonimizatua izan zen, eta aplikazioaren log-datuak helburu agregatu eta proportzionalekin erabili ziren, soilik jarduera orokorrak aztertzeko.

Bestalde, proiektuaren ikuspegi humanistikoak ezarri zuen etikaren printzipio gidaria: pertsonen duintasuna eta autonomia errespetatzea, datuen gardentasuna bermatzea, eta teknologia sozialaren erabilera inklusibo eta ez-diskriminatzailea sustatzea.

3.7. Muga kontzientzia eta ikaskuntza prozesua

Esperientzia honen mugek ikerketaren emaitzak interpretatzeko esparrua baldintzatu dute. Lehenik, interbentzioaren iraupena laburra izan zen (hilabete ingurukoa), eta horrek ez zuen ahalbidetu epe luzeko eraginak neurtzea. Bigarrenik, parte-hartzaileen hautaketa ez zen ausazkoa, baizik eta herrietako talde eta ekimen aktiboetan oinarritua, eta horrek laginaren homogeneotasun partziala ekarri zuen. Azkenik, neurri kuantitatiboak mugatuak izan ziren, jarduera erregistratuetan oinarrituta, ez portaera osoaren datu objektiboetan.

Hala ere, ikerketaren sendotasuna bermatzeko, hiru estrategia metodologiko erabili ziren: iturrien triangulazioa (datu kualitatibo eta kuantitatiboaren konbinazioa), testuinguruaren deskribapen lodia (edo ingelesezko *thick description*, —Geertz, 1973—), eta parte-hartzaileekin egindako kontraste-saioak (*member checking*). Estrategia horiek baliozkotasun ekologikoa eta interpretazio kolektiboaren koherentzia indartu zuten.

4. Emaitzak

"Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen" esperientziaren emaitzek erakutsi dute teknologia soziala, parte-hartze komunitarioa eta ongizate fisiko-emozionala uztartzea posible dela ikuspegi integral baten bidez. Jadanik aipatu den moduan, proiektua *theory of change* ereduaren oinarritu zen, zeinak prozesu sozialak hiru mailatan ulertu behar direla azpimarratzen duen (pertsonala, komunitarioa eta sistemikoa edo profesionala). Marko hori oinarri hartuta, emaitzak hiru dimentsio integratu hauetan egituratu dira:

1. Parte-hartzea, kohesioa eta eraldaketa komunitarioa,
2. Gaitze digital inklusiboa eta ahalduntze pertsonala, eta
3. Ongizate soziala eta praktika profesionalaren eraldaketa.

Azken dimentsio horrek bereziki erakusten du nola uztartzen diren komunitatearen ongizatean gertatutako aldaketak eta profesionalen jardunean sortutako ikaskuntza; biak elkar elikatzen dira eta eraldaketa zirkular baten parte dira. Horrez gain, *theory of change* markoaren ikuspegi sistemiko, komunitario eta pertsonalak elkarren artean lotuta ulertu dira, eta dimentsio esperientzialak —parte-hartzaileen bizipen emozionalak, komunitatearen dinamika berriek eta profesionalen ikaskuntza kolektiboek— hiru maila horiek uztartzen dituen hari komun gisa jardun dute. Horregatik, emaitzak ez dira soilik inpaktu kuantitatiboaren arabera interpretatu behar, baizik eta esperientzia partekatua, gaitze komunitarioaren eta eraldaketa profesionalaren arteko sinergiaren ikuspegitik.

4.1. Parte-hartzea, kohesioa eta eraldaketa komunitarioa

Esperientziaren lehen emaitza nabarmena izan zen parte-hartze sozialaren eta kohesio komunitarioaren sendotzea. Proiektuaren ondorioz, belaunaldien arteko espazio berriak sortu ziren Bidania-Goiatzen eta Errezilen, eta komunitate-sare berriak eta konfiantzazko harremanak ehundu ziren. Parte-hartzaileek adierazi zuten jarduerak komunitate-sentimendua eta tokiko identitatearen indarra handitu zituztela. Horrek bat egiten du Arriazu eta Fernández-Pachecok (2013) azaldutako ikuspegiarekin, harreman-sare berriak eta elkarlan digitala gizarte-ongizatearen osagai bihurtzen dira. Era berean, Ferran eta besteek (2024) dioten moduan, ekintza komunitarioak ez du helburu bakarria parte-hartzea, baizik eta esanahi partekatua sortzeko prozesua da. Esperientziak hori berretsi zuen: komunitate txikiak gai dira beren balio sozialak eta kohesioaren logikak berrasmatzeko, tokiko beharretatik eta harreman afektiboetatik abiatuta.

Kania eta Kramerrek (2011) proposatutako *collective impact* ikuspegiari jarraikiz, ekimenaren arrakasta

eragile anitzen arteko helburu partekatuetan eta jarraipen komunetan oinarritu zen. Horren isla izan zen tokiko eragileen koordinazio zabala: gizarte-langilea, teknologo soziala, liburuazaina, eskolako zuzendaritza, ludotekako hezitzaileak, eguneko zentroetako langileak, osasun-profesionalak eta baita udaleko ordezkariak ere aritu ziren batera. Horrek erakutsi zuen diseinu sozialaren metodologiak komunitatearen errealiterara egokitzeko eta motibazioa bultzatzeko gaitasun handia zuela.

Diseinu sozialak inklusioa eta motibazioa uztartu zituen:

- Etapak eta sari sinbolikoak ezarri ziren, kilometro bakoitza urte batekin parekatuz, eta amaieran tokiko produktuez osaturiko oterra bat zozketatu zen.
- Jarduera belaunaldien artekoa bazen edo beste norbaitekin partekatua, kilometro gehigarriak ematen ziren.
- Mugikorrik gabeko pertsonak ere parte hartu ahal izan zuten, Wellk aplikazioaren multiprofil funtzioari eta erreferentziako pertsonen laguntzari esker.

Horrela, eguneko zentroetako, haur eta adinekoen jarduerak modu kolektiboan erregistratu ziren, eta parte-hartze osoa bermatu zen. Proiektuaren barruan hiru esperientzia intergenerazional nagusi nabarmendu ziren:

1. Bidania-Goiatzen, gazteek galderak egin zizkieten adinekoei herriko historiari buruz, eta jarduera Wellk-en erregistratu zen.
2. Errezilen, gazteek eta hezitzaileek jolas intergenerazionalak sortu zituzten, tokiko ohiturak partekatzeko, amaieran merendola batekin.
3. Bidania-Goiatzen, Ontzi Fabrikara bisita antolatuta zen, herriaren oroimen kolektiboa lantzeko eta transmisio kulturala sustatzeko.

Ekimenean gehien landu zen jarduera izan zen oinez ibiltzea (586 ordu), ondoren luzaketak (128,7 ordu) eta korrika egitea (68,5 ordu). Jarduera hauek guztiek sozializazio modu osasuntsuagoak bultzatu zituzten eta gizonezkoen parte-hartzea handitu zuten (% 55,4 gizonezko, % 40,5 emakume, % 4 "beste aukera bat", hots, generoa adierazi nahi ez zuten pertsonak). Horrek erakutsi zuen proiektuak bakardadeari aurre egiteko eta sozializazio maskulino tradizionalagoak berritzeko gaitasuna zuela. Parte-hartzaile batek adierazi zuen: "lehen ez genuen halakorik egiten, bakoitza bere ohituretan zebilen, baina orain elkarrekin ibiltzea eta gauzak kontatzea polita izan da, beste era batera ez litzateke gertatuko".

Esperientziaren eraldaketa komunitarioa pausatua baina metatua izan zen. Aurretik "Auzotu" programaren bidez landutako oinarri komunitarioek jarraipena izan zuten, eta prozesuak lurralde mailako interesa ere piztu zuen: inguruko herrietako komunikabideek esperientzia jaso zuten eta beste udalerrri batzuek antzeko ekimenak abian jartzeko interesa adierazi zuten.

Parte-hartzaile batek laburbildu zuen: "jendeak oso ondo pasa du, harrituta daude beren buruekin nola izan diren gauza horiek egiteko. Baina erronkaren jarraipen bat faltan sumatu dute, umezurtz geratu dira!" Horrek erakusten du proiektuaren arrakastaren paradoxarik handienetakoa: parte-hartzaileek jarraipenerako gogoia azaldu zuten, komunitatearen dinamika berriak sendotzearen seinale.

Azkenik, Saiaz Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen ikuspegitik, esperientzia hau ez da ekintza isolatu bat, baizik eta urteetan zehar garatutako lan komunitarioaren ildoaren jarraipena. Mankomunitateak aspalditik sustatu ditu programa komunitarioak (esku-lanak, yoga eta pilates saioak, "Tipi-tapa" paseo osasuntsuak, adinekoen dinamizazio jarduerak eta liburutegiko ekimen parte-hartzaileak) pertsonen arteko sareak eta komunitate-loturak indartzeko.

Horren harira, teknologia komunitarioaren programa tresna oso baliagarria izan da haur, gazte eta adinekoekin elkarlanean aritzeko, arrakala digitalari aurre egiteko eta beldurrak gainditzeko. Adibidez, gero eta heldu eta adineko gehiagok parte hartzen dute herrietako WhatsApp taldeetan, bertako informazioa jarraituz eta komunikazio-dinamika berrietan eragile aktibo bihurtuz. Esperientzia horrek erakutsi du trantsizio digitala komunitatean oinarrituta egiten denean inklusiboagoa, iraunkorragoa eta sozialki aberasgarriagoa dela.

4.2. Gaitze digital inklusiboa eta ahalduntze pertsonala

Esperientziaren bigarren ardatzak gaitze digital inklusiboa eta ahalduntze pertsonala uztartu zituen. Hasieran, parte-hartzaile askok beldurra edo mesfidantza zuten teknologiaren aurrean. Baina talde-lanaren eta laguntza profesionalaren bidez, beldur hori konfiantza, gogoia eta harrotasun bihurtu zen. Parte-hartzaile baten hitzetan: "hasieran teknologiarekiko beldurra nuen, baina elkarrekin erabilia konfiantza hartu dut". Beste batek gehitu zuen: "nik ez nuen sekula pentsatuko horrelakorik egingo nuenik, hain gustura ibiltzea eta hainbeste ikastea saltseatzearekin".

Zentzu horretan, aurkezpena egiteko modua erabakigarria izan zen: ekimena espazio naturaletan aurkeztu zen, "Tipi-tapa" saioen ostean (paseo osasuntsu eta komunitarioak), saldatxo bat hartzen ari zirela, eta horrek harrera bero eta gertukoa erraztu zuen. Parte-hartzaileak pertsona erreferenteen bidez gerturatu ziren (gizarte-langileak, teknologo sozialak, liburuzaina), konfiantzan oinarritutako sare afektibo batetik.

Lehen urratsa —Wellk aplikazioa deskargatzea— askorentzat erronka izan zen, baina aldi berean lorpen kolektiboa bihurtu zen. Parte-hartzaile batek hasierako ezinegona azaltzen du: "telefonoarekin lehen deia egiten nuenean izan zen lehen kontaktua.

Gero internetaren kontu hori etorri zen eta buff, enekien ezer". Beste batek gehitu zuen, hasierako ezinegon horren ostean gustura aritu izan zela erronkaren baitan: "Wellk-en, adibidez, hasieran zaila egiten zitzaidan. Gero Antxon eta biok liburutegira etorri ginen argazkiak nola erregistratu galdetzera aste pare baten, eta harrez gero gustura, denbora pasatzeko ere primerakoa!".

Fenomeno hori alfabetizazio digitalaren ikuspegitik uler daiteke (Fernández-Riquelme, 2019), non gizarte-langileek eta teknologo sozialek bitartekaritza erraztu zuten gaitze digitalaren eta gizarteratzearen artean. Gurstein-en (2007) *Community informatics* ikuspegiarekin bat etorriz, esperientziak erakutsi zuen teknologia esanguratsua dela, komunitatearen ahalduntze eta autoantolaketa prozesuaren gakoa izan daitekeela.

Ekimenak erakutsi zuen emozio positiboek —poza, harritzea, gogoia— beldurra gainditzeko eta parte-hartzea sustatzeko motor eraginkorra direla. Herri txikietan, non ezagunak izan arren belaunaldiak gutxitan nahasten diren, proiektuak elkarrekiko ulermena eta belaunaldi arteko enpatia sustatu zituen. Parte-hartzaile batek hala adierazi zuen: "Oso ondo pasa dut, gustatu zait denekin egotea eta jolas egitea. Beti etxean edo zentroan nago, baina hemen beste modu batean sentitu naiz".

4.3. Ongizate soziala eta praktika profesionalaren eraldaketa

Dimentsio honek ongizate sozialaren emaitzak eta profesionalen jardunaren bilakaera uztartzen ditu, biak elkar elikatzen diren prozesu gisa. Izan ere, komunitatearen ongizatean izandako hobekuntzek praktika profesionalaren aldaketa ekarri zuten, eta, alderantziz, profesionalen ikuspegi eta jardun berriek ongizate sozialaren baldintzak indartu zituzten. Lotura horrek erakusten du nola eraldaketa sozial iraunkorra pertsonen eta eragileen arteko ekintzaren sinergiatik sortzen den.

4.3.1. Ongizate fisiko-sozialaren dimentsioa

Jarduera fisikoaren sustapenak eta ongizate emozionalaren hobekuntzak elkar osatu zuten, "elkarrekin aktibo egoteak" ekartzen duen kohesio soziala sendotuz. Wellk aplikazioaren bidezko erronka ludikoak mugimenduaren bidezko motibazioa sustatu zuen, eta parte-hartzaileek 4.324 kilometro eta 544 jarduera egin zituzten. Parte-hartzaileek azpimarratu zuten jarduera fisikoak zentzu sozial eta komunitarioa hartu zuela: jarduerak elkartzeko eta taldean aritzeko gogoia piztu zuten, eta askok azaldu zuten beste pertsonekin geratzeko edo taldean jarduteko plazera izan zutela. Horrek, aldi berean, motibazioa eta jarraikortasuna handitu zituen, taldearen dinamika indartuz.

Emaitza horiek bat datoz Putnam (2000) eta Moulaert eta besteen (2013) ikuspegiarekin, zeinen

arabera kapital sozialaren hazkundeak eta elkarlan komunitarioak gizarte-ongizatean eta berrikuntza sozialean eragin zuzena baitute.

4.3.2. *Praktika profesionalaren eraldaketa*

Prozesuan zehar, profesionalak ikaskuntza kolektiboa bizi izan zuten, eta horrek erakutsi zuen teknologia sozialak eta diseinu komunitarioak uztartzean gizarte-langintza humanista eta eraldatzailea garatzen dela.

Parte-hartzaile eta profesionalen arteko harremanak ez ziren soilik operatiboak, baizik eta konfiantzan eta berdintasunean oinarritutako harreman eraldatzaileak. Zentzu horretan, Gizarte Langileak adierazi zuen: "bulegotik atera eta jendearen bila ateratze hori oso garrantzitsua da". Liburuzainak gehitu zuen: "lagunduta zoaz; beti komentatzen dugu 'zerbait egin behar dugu' eta 'zer?', eta 'ez dakit, baina tira!'. Beti eseraldi baten ostean zeozter ateratzen da".

Esperientziak agerian utzi zuen teknologo sozialaren rola —laguntzailea ez ezik konektatzailea den figura— gero eta beharrezkoagoa dela. Gizarte-langilearen eta teknologo sozialaren arteko lankidetzak estua (ekintzen diseinua, koordinazioa eta jarraipena) sinergia eraginkorra bihurtu zen. Herriaren tamaina txikiak eta gertutasunak koordinazioa erraztu zuten. Bidania-Goiatzen eguneko zentroa, anbulatorioa, liburutegia eta erabilera anitzeko gela espazio berean kokatzeak elkarlan natural eta egonkorra ahalbidetu zuen.

Proiektuaren gizarte-langileak honela adierazi zuen: "nik honekin ere ikasi dut". Izan ere, gizarte-langilearen rola esperientzian zehar berrinterpretatu zen: bulegotik kalera irten eta herritarren espazioetan lan egitea, teknologiarekin bitartekaritza egitea eta komunitatearen konfiantza indartzea bilakatu ziren lanaren ardatz. Horrek erakutsi zuen gizarte-zerbitzuak ez direla soilik laguntza administratiboko guneak, baizik eta komunitatearen parte aktiboak ere badirela.

Eraldaketa hori Saiaz Mankomunitateko ibilbide profesional eta instituzional zabalago baten barruan ulertu behar da. Urteak daramatzate bertako gizarte-zerbitzuetatik programa komunitarioak sustatzen, hala nola "Tipi-tapa" ibilaldi osasuntsuak, adinekoen dinamizazio ekintzak edo liburutegiko jardura komunitarioak. Esperientzia honen bitartez, ikuspegi horrek jauzi kualitatiboa egin du, teknologia komunitarioa eta praktika sozial tradizionalak uztartuz.

Horren adibide da Bidania-Goiatzko liburutegian garatutako "Tekno-saltseroak" programa, zeinak erronkaren diseinuaren oinarriak jartzen lagundu zuen, astean behin tailer praktikoak eskainiz eta herritarrei WhatsApp eta beste aplikazioen erabilera lagunduz. Horrek komunitatean oinarritutako ikaskuntza digital jarraitua sustatu zuen, eta teknologiarekiko beldurrak pixkanaka murriztu zituen, bereziki adinekoen artean.

Profesionalak, oro har, ikaskuntza digital eta komunitario sakona bizi izan zuten: Wellk aplikazioaren erabilera trebatu ziren, eta horrek gaitasun digitalak eta ikuspegi berritzailea sortu zituen zentroetan. Adibidez, fisioterapeutak *smartwatch*-ak erabiltzen hasi ziren jarraipenerako, eta datuen bilketa kolaboratiboa komunitatearen oihurak hobeto ulertzeko tresna bihurtu zen. Horrela, esperientziak profesionalen rol tradizionala zabaldu zuen, eta erakutsi zuen gizarte-langileek eta bestelako eragileek teknologo sozialaren funtzio berria bereganatu dezaketela, komunitatearen beharrei erantzuteko bitartekari, dinamizatzaile eta konektatzaile gisa jardunez.

Azken batean, ongizate sozialaren eta praktika profesionalaren arteko lotura ez da paraleloan gertatzen den bi prozesuena, baizik eta bata bestearen baldintza den dinamika zirkular batena. Komunitatearen ongizatean aurrera egiteak profesionalen ikuspegia eta jarduna berrasmatzen ditu, eta profesionalen eraldaketak, bere aldetik, komunitatearen gaitasunak eta konfiantza indartzen ditu. Hori da esperientzia honek erakusten duen irakaspen nagusietako bat: gizarte-berrikuntza komunitarioa ez dela soilik teknologiarekin lortzen, baizik eta praktika profesionalaren ikuspegi aldatuarekin hasten dela.

4.4. *Inpaktua eta ebaluazio orokorra*

Azken itxiera-saioan egindako ebaluazioak baieztatu egin zuen esperientziaren inpaktua *theory of change* markoan zehaztutako hiru dimentsio nagusietan —pertsonala, komunitarioa eta profesionala—. Hori galdetegian jasotako lau adierazle operatiboetan islatuta geratu zen: sozializazio-espazio berriak, ongizate fisiko-soziala, tokiko historiaren zaintza eta kohesio komunitarioa. Galdetegiaren bidez jasotako datuek honakoa erakutsi zuten:

- Parte-hartzaileen % 74k sozializatzeko modu berriak esperimentatu zituztela.
- % 100ek komunitate zentzua eta kultura-balioen transmisioa baloratu zutela.
- % 81ek zerbait berria ikasi zutela arlo digitalean.
- Eta % 63k teknologia egunerokoan gehiago erabiltzeko interesa agertu zutela.

Balorazio orokorra 7,3/10 izan zen, eta gehienek belaunaldi arteko harremanen sendotzea nabarmendu zuten. Puntuazio hori positiboa baina orekatua izan zen, esperientziaren izaera komunitario eta berritzailearen testuinguruan ulertuta: ez "entusiasmo lineal" baten adierazle, baizik eta prozesu parte-hartzaile konplexu baten irakurketa erreal eta kritikoaren isla. Parte-hartzaileek ez zuten ekimena kontsumo-esperientzia gisa bizi, baizik eta ikaskuntza kolektibo eta komunitario gisa, non pozak, zailtasunak eta lorpen txikiak balio bera izan zuten.

Horrek adierazten du gogobetetze maila heldu eta hausnartu bat. Ez da ahaztu behar esperientziaren

sakontasuna eta jarraipen-desira islatzen zituen balorazioa izan zuela parte hartzaileen aldetik: askok aipatu zuten erronkaren amaieran “umezurtz” sentitu zirela, proiektuaren jarraipen baten beharra nabarmenduz. Horrek erakusten du parte-hartze aktiboa eta kontzientzia komunitarioa benetako inpaktu sozialaren adierazle direla, eta ez soilik puntuazio altuen bidez neurtzen den asebetetze emozionala.

Emaitzek, oro har, gaitze digital inklusiboaren, ongizatearen eta kohesio sozialaren arteko sinergia positiboa erakutsi zuten, López Peláez eta besteek (2018) deskribatutako gizarte-langintza digitalaren printzipioekin bat etorritik. Azken batean, esperientziak frogatu zuten komunitatearen autogaitasunaren eta elkarlanaren bidez eraldaketa sozial iraunkorren oinarriak ezarri zirela, eta *theory of change* markoak aurreikusitako aldaketa zirkular eta sistemikoaren logika praktikan egiaztatu zela.

5. Ondorioak

“Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen” esperientziak, agerian utzi du teknologia sozialaren eta komunitatearen protagonismoaren arteko elkarreragina dela berrikuntza sozialaren oinarria. Diseinu sozialaren eta ikuspegi komunitarioaren elkargunean, proiektuak erakutsi du berrikuntza digitala balio sozial eta kulturarekin uztartzea posible dela, tokiko errealitateetatik eta herritarren ekarpenetatik abiatuta.

Emaitzek erakutsi dute tokiko komunitate txikiek gaitasuna dutela beren balio sozialak eta kohesioaren logikak berrasmatzeko, ikuspegi integral baten bidez. Horrela, ekintza komunitario inklusiboek —Ferran eta besteek (2024) azpimarratu bezala— zubi-lana egiten dute ikuspegi mikroaren eta makroaren artean: tokiko berrikuntza txikiek politika publikoen norabidea elika dezakete, eta, alderantziz, politika horiek tokiko dinamika berritzaileei bide eman. Horrek berretsi egiten du gobernantza kolaboratiboaren garrantzia, Barandiaranek (2021) proposatutako markoarekin bat etorritik, non komunitateen eta erakundeen arteko elkarlan horizontalak balio publikoa eta lurralde-kohesioa indartzen dituen.

Halaber, *collective impact* ikuspegitik (Kania eta Kramer, 2011), esperientziaren arrakasta helburu partekatuetan, ebaluazio komunetan eta komunikazio etengabearen oinarritu da. Eragile anitzen arteko dinamika kooperatiboak (gizarte-langileak, teknologo sozialak, liburuzaina, hezitzaileak, osasun-langileak, udal ordezkariak) egitura malgu eta jasangarri bat sortu du. Horrek erakutsi du gizarte-langintzak bere jarduna berrasmatzeko gaitasuna duela, praktika komunitarioa, elkarlana eta diziplina artekotasuna uztartzen direnean.

Esperientziak agerian utzi du gizarte-zerbitzuen egungo esparruan nagusitu den esku-hartze indibidualizatuaren logika gainditu daitekeela,

komunitatearen beharrak, gaitasunak eta harreman-sareak ardatz hartzen direnean. Ikuspegi horretan, gizarte-langileak teknologo sozialaren rola bera har dezake: teknologiarekin bitartekari eta harreman digitalen, sarete-prozesuen eta berrikuntza sozialaren eragile gisa. Horixe gertatu zen esperientzia honetan bertan: gizarte-langile batek hartu zuen teknologo sozialaren figura, ikuspegi humanista eta komunitario batetik gidatuta, eta hori izan zen proiektuaren arrakastaren gako nagusietako bat.

Ikuspegi metodologikotik, esperientziak bi ekarpen nagusi egiten ditu: alde batetik, gizarte-langintzaren praktika digitalaren aplikazio errealearen sistematizazioa, eta, bestetik, mikroberrikuntza sozialaren balioa azaleratzea, Moulart eta besteek (2013) deskribatzen duten bezala. Tokiko komunitateetan sortutako ekintza txikiek gizarte-eraldaketa zabalagoak susta ditzaketela frogatu da, eta, horren bidez, komunitate digitalen eta ezagutza kolektiboaren artikulazioa gizarte-berrikuntzaren oinarri bihurtzen da (Gurstein, 2007).

Emaitzetan oinarrituta, proiektuak inpaktu sozial, kultural eta emozional handia sortu du. Parte-hartzaileek osasun fisikoa, teknologia soziala eta elkartasuna uztartu dituzte, eta horrek kohesio handiagoa eragin du komunitatean. Teknologia sozialak ez du izan helburu tekniko hutsa, baizik eta harremanak, konfiantza eta identitate kolektiboa berrasmatzeko bitartekaria izan da, gizarte-langintzaren oinarri etiko eta profesionalarekin bat etorritik.

Horrez gain, proiektuaren garapenean zehar nabarmendu zen ikaskuntza kolektiboaren dimentsioa. Tokiko eragileek eta profesionalak (teknologo sozialak, gizarte-langileak, komunitateko taldeak) modu kooperatiboan lan egin zuten, eta horrek erakutsi zuen aldaketa sozial eta digitalak ez direla inposatzen, baizik eta elkarlanean eraikitzen. Prozesuak erakutsi zuten eraldaketa pertsonalak eta kolektiboak elkar elikatzen direla, eta hori izan zen esperientziaren ikasgai nagusietako bat.

Etorkizunari begira, esperientziak bi erronka nagusi uzten ditu mahai gainean:

- Lehenik, errepikagarritasuna eta sistematizazioa sendotzea: proiektua dokumentatzea, eredu beste udalerririk txikietara egokitzeko moduan antolatzea, eta *theory of change* markoan definitutako adierazle partekatuek mantentzea. Zentzu horretan, artikulua hau bera lehen urratsa da erronka horri erantzuteko, esperientziaren sistematizazio akademikoa eta ezagutza partekatuen eraikuntza uztartzen baititu ikuspegi komunitario batetik.
- Bigarrenik, gizarte-langintzaren prestakuntzan gaitasun digitalak eta diseinu sozialeko trebetasunak txertatzea beharrezkotzat jotzen da, diziplinatik lideratutako ikuspegi humanista baten pean. Aurretik azaldu den bezala, artikulua honek erdigune izan duen esperientziak erakutsi

du gizarte-langilearen rola zabaldu eta teknologo sozialaren figura egikaritzearen interesa eta beharra: gizarte-langilea ez da soilik esku-hartze pertsonalen arduraduna, baizik eta berrikuntza sozialaren eta lotura digitalaren eragile ere izan daiteke, komunitatearen ongizatea ardatz hartuta.

Horregatik, esperientzia hau ez da soilik praktika arrakastatsu baten adibidea, baizik eta gizarte-langintzaren diziplinarako eta jardun profesionalerako ikaskuntza-prozesu irekia ere: tokiko kulturaren, belaunaldien arteko harremanen eta teknologia sozialaren uztarketak erakusten du posible dela gizarte-zerbitzuen baitako gizarte-langintza berrasmatea, diziplinaren ikuspegi komunitario eta digital zabalagoarekin koherentzian.

Azken batean, aztertu den esperientziak erakutsi du teknologia soziala ez dela helburu, baizik eta komunitatearen ongizatea, konfiantza eta elkartasuna berrasmatzeko prozesu dinamikoa. Proiektuaren

hurrengo urratsak emaitza positibo horiek sendotzea eta erreplika-eredu praktikoak garatzea izango dira, beste komunitate batzuek ere antzeko esperientziak bizitzeko aukera izan dezaten, gizarte-eraldaketa iraunkorraren bidean.

Oharrak

Artikulu hau Saiaz Mankomunitatean garatutako "Erronka komunitarioa: historian zehar bidaiatzen" esperientziaren sistematizazioaren emaitza da. Egileek prozesuan parte hartu dute rol osagarrietan: Ane Arteche Ortigosak teknologo sozial gisa, Elena Rikondo Sáenzek gizarte-langile gisa, eta Maddalen Epelde Juaristik laguntza akademiko eta sistematizazioaren koordinazio-lanetan. Esperientzia bera komunitatearen eta erakundeen arteko lankidetzara gisa garatu zen, gizarte-berrikuntza eta ezagutza-transferentzia uztartuz.

Aipatutako bibliografia

- APTES-GIZARTE TEKNOLOGIA SUSTATZEKO ELKARTEA (2023): *Marco para la transformación cultural en la era digital del tercer sector social de Gipuzkoa*, Donostia, APTES-Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkartea.
- ARRIAZU MUÑOZ, R. eta FERNÁNDEZ-PACHECO, J. L. (2013): "Internet en el ámbito del trabajo social: formas emergentes de participación e intervención socio-comunitaria", *Cuadernos de Trabajo Social*, 26. bol., 1. zb., 149.-158. or., <https://doi.org/10.5209/rev_CUTS.2013.v26.n1.41665>.
- BARANDIARAN, X. (2021): "Gobernanza colaborativa para la innovación pública y social: el caso de Gipuzkoa", *European Public & Social Innovation Review*, 6. bol., 2. zb., 78.-96. or., <https://doi.org/10.5209/rev_CUTS.2013.v26.n1.41665>.
- BERASALUZE, A. eta OVEJAS, C. (2022): "Los desafíos de la intervención social en el sistema de servicios sociales", in Fundación Eguía Careaga (ed.), *Servicios sociales y vulnerabilidad frente a la pandemia*, l. g., 71.-86. or., <<https://doi.org/10.5569/978-84-09-39714-3>>.
- BOURDIEU, P. (1986): "The forms of capital", in RICHARDSON, J. (ed.), *Handbook of theory and research for the sociology of education*, New York, Greenwood, 241.-258. or.
- BRAUN, V. eta CLARKE, V. (2006): "Using thematic analysis in psychology", *Qualitative Research in Psychology*, 3. bol., 2. zb., 77.-101. or.
- DEL FRESNO, M. eta LÓPEZ, J. (2014): "La intervención social en la era digital: comunidades, redes y ciudadanía", *Documentos de Trabajo Social*, 54. zb., 45.-60. or.
- ESPAINIA (2018): "Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales", *Boletín Oficial del Estado*, 294. zb., 2018-12-06.
- ESPAINIAKO GOBERNUA (2021): *Carta de Derechos Digitales*, Madril, Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital.
- EUROPAKO BATZORDEA (2022): *Declaración Europea sobre los Derechos y Principios Digitales para la Década Digital*, Brusela, Europako Batzordea.
- EUROPAR BATASUNA (2016): "Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento General de Protección de Datos – RGPD)", *Diario Oficial de la Unión Europea*, L 119.
- (2021): "Dictamen del Comité Económico y Social Europeo sobre la 'Comunicación de la Comisión al Parlamento Europeo, al Consejo, al Comité Económico y Social Europeo y al Comité de las Regiones – Brújula Digital 2030: el enfoque de Europa para el Decenio Digital', COM(2021) 118 final", *Diario Oficial de la Unión Europea*, C 374/05, 2021-09-16, <<https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=CELEX:52021AE1530>>.
- FANTOVA, F. (2018): "Los retos de la acción social en las políticas públicas" [blog-sarrera], *Fantova.net*, <<https://www.fantova.net/download/los-retos-de-la-accion-social-en-las-politicas-publicas-2017/>>.
- FERNÁNDEZ-RIQUELME, S. (2019): "Conocer, integrar y divulgar: las tecnologías digitales para la investigación y la intervención en trabajo social", *Trabajo Social Hoy*, 88. zb., 43.-68. or., <<https://doi.org/10.12960/TSH.2019.0015>>.

- FERRAN, A.; ETXEBERRIA, B.; GUINOT, C. eta BERASATEGUI, A. (2024): "Ekintza komunitarioa eta inklusiorako gizarte-politikak Gipuzkoan: esanahia, irismena eta erronkak", *Zerbitzuan*, 80. zb., 83.-94. or., <<https://doi.org/10.5569/1134-7147.85.06>>.
- GEERTZ, C. (1973): *The interpretation of cultures*, New York, Basic Books.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2023): *Arrakalarik gabeko ekimen digitalak sortzeko gida*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia; Open Government Partnership Euskadi, <<https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/64145661/Eranskina-Arrakalarik%20gabeko%20ekimen%20digitalak%20sortzeko%20gida.pdf>>.
- GURSTEIN, M. (2007): *What is community informatics (and why does it matter)?*, Publishing Studies saila, 2. zb., Monza, Polimetrica, <<https://arxiv.org/abs/0712.3220>>.
- KANIA, J. eta KRAMER, M. (2011): "Collective impact", *Stanford Social Innovation Review*, 9. bol., 1. zb., 36.-41. or.
- LI, W.; BHUTTO, T. A.; NASIRI, A. R.; SHAIKH, H. A. eta SAMO, F. A. (2017): "Organizational innovation: the role of leadership and organizational culture", *International Journal of Public Leadership*, 14. bol., 1. zb., 33.-47. or., <<https://doi.org/10.1108/IJPL-06-2017-0026>>.
- LOACH, K. (2016): *I, Daniel Blake* [filma], Sixteen Films.
- LÓPEZ PELÁEZ, A.; PÉREZ GARCÍA, R. eta AGUILAR-TABLADA, M. V. (2018): "e-Social work: building a new field of specialization in social work?", *European Journal of Social Work*, 21. bol., 6. zb., 804.-823. or., <<https://doi.org/10.1080/13691457.2017.1399256>>.
- MORALES, E. eta REBOLLO, Ó. (2025): *Ekintza komunitarioa. Gida metodologikoa*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia; Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Gobernu eta Politika Publikoen Institutua (IGOP), <<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza/-/ekintza-komunitarioa.-esperientziak.-bikoiztu-1>>.
- MOULAERT, F.; MACCALLUM, D.; MEHMOOD, A. eta HAMDOUCH, A. (2013): *The international handbook on social innovation: collective action, social learning and transdisciplinary research*, Cheltenham, Edward Elgar.
- PACHECO-MANGAS, J.; PALMA-GARCÍA, M. eta HOMBRADOS-MENDIETA, I. (2020): "Resiliencia y cultura organizacional de los servicios sociales en la era de la digitalización", *Revista Prisma Social*, 29. zb., 123.-137. or., <<https://revistaprismasocial.es/ps/article/view/3603/>>.
- PLENA INCLUSIÓN (2018): *Guía de evaluación de la accesibilidad cognitiva en entornos digitales: metodología común del movimiento asociativo Plena Inclusión*, Madril, Plena Inclusión, <<https://www.plenainclusion.org/publicaciones/buscar/guia-de-evaluacion-de-la-accesibilidad-cognitiva-de-entornos/>>.
- PUTNAM, R. D. (2000): *Bowling alone: the collapse and revival of American community*, New York, Simon & Schuster.



Esperientziak
Experiencias

